

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5463

AGINDUA, 2018ko urriaren 22koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak instalatzeko instrukzio teknikoak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumena da bertako errepide-plan orokorra onartzea, hala ezarrita baitago honako xedapen hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikuluan; Autonomia-erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 artikuluan. Errepide Plan Orokorrean, arau teknikoak eta seinalizaziokoak ezartzen dira, gero EAEko administrazio publikoek errepide-sareetan indarrean jarriko dituztenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorrean jasotako arau teknikoek barne hartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen titulartasuneko errepideetan obrak gauzatzeko nahitaez bete beharreko arau edo instrukzioen multzoa, betiere errepideen arteko koordinazio teknikoa bermatzea helburutzat hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 7.1 eta 11.2 artikulua).

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra idaztea eta ohiko aldaketak landu eta onartzea. Aldaketa horien artean, eraikuntzako eta materialetako arau edo instrukzio teknikoak buruzkoak daude, Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan edozein obra egiteko bete beharrekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 8.3 artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Bigarren Plan Orokorren Berrikusketa onartzen duen azaroaren 23ko 307/2010 Dekretuaren 5. artikulua).

Errepide Plan Orokorren Batzordeak, batzordekide guztien adostasunez, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak instalatzeko instrukzio teknikoaren aldeko txostena ematea erabaki zuen.

Bestalde, errepide-plan horren gainean egindako ohiko aldaketak arlo horretako eskumena duen saileko sailburu titularrak onartuko ditu, agindu bidez, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 14. artikuluan.

Organo honek dauka aipatutako aldaketak onartzeko eskumena, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 7.1.s) artikuluan.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

2018ko azaroaren 7a, asteazkena

XEDATZEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Plan Orokorraren ohiko aldaketa onartzea (ikusi agindu honen eranskina). Aldaketa horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko zeharbi-deetan abiadura-murriztaileak instalatzeko instrukzio teknikoa onartzen da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 22a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

EAE-KO ERREPIDEETAKO ZEHARBIDEETAN ABIADURA-MURRIZTAILEAK INSTALATZEKO INSTRUKZIO TEKNIKOA

1.– Hitzaurrea.

Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko maiatzaren 30eko 2/1989 Legeak xedatzen du Errepide Plan Orokorrek nahitaez bete beharreko diren eta autonomia-erkidegoan indarrean jarriko diren arau teknikoak jasoko dituela, behar den koordinazioa bermatzearren, eta aipatutako 2/1989 Legeak ere arautzen dituen Errepideen Plan Orokorren Batzordearen barruan idatziko direla arau horiek.

Printzipioz, foru-erakunde bakoitzak barneko irizpideak eta jarraibideak ezarri zituen foru-sareetako zeharbideen bide-segurtasunaren arloan, era horretan arazoak kasu bakoitzaren berezitasunaren arabera konpondu ahal izateko. Geroago, Bizkaiko Foru Aldundiak abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak jartzeko instrukzio teknikoak onartu zuen ekainaren 22ko 88/2010 Foru Dekretuaren bidez.

Estatuan, bestalde, Estatuko sare orokorreko errepideetan abiadura-murriztaileak eta zeharkako alerta-bandak ezartzeko instrukzio teknikoak onartu zen FOM/3053/2008 Aginduaren bidez. Instrukzio hori ordezkotza izatekin baina ez da aplikatzekoa, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sarean. Interes orokorreko errepide-sarerako diseinaturik dago, gainera, eta ez ditu autonomia-sareko zeharbideen berezitasunak biltzen ondorioz.

Autonomia-erkidegoan hainbat udalen araudi eta ordenantzak ere badaude, udal-sareetan aplikatu beharrekoak.

Zeharbideen bide-segurtasuna gai konplexua da, interes kontrajarriak dituzten askotariko zirkulazio-moten bizikidetzak lortu behar baita ezinbestean (motordun ibilgailuak, txirrindulariak, oinezkoak, ibilgailu bereziak), eta ingurunearen baldintzak ere badira oso bestelakoak zirkulazioaren kuantifikazio eta ezaugarriei dagokienez, bidearen funtzionaltasun eta diseinuari dagokienez, zein haren ertzen erabilera, orografia eta abarrei dagokienez, eta oreka bilatu behar da bertan planteatzen diren irtenbideen segurtasun-baldintzak eta eraginkortasuna bermatzeko, baita guztiontzako gutxieneko erosotasun-estandar batzuk ere.

Zirkulazioa moteltzea gehien erabilitako bide-segurtasuneko neurrietako bat da zirkulazioko istripuen maiztasuna eta larritasuna gutxiagotzeko herri barruko bide eta zeharbideetan. Hainbat neurri diseinatu ahal dira (bide-trazadurari, zeharkako sekzioari, errodatzeari, inguru-diseinuari, Garraio Informazio Sistemari buruzkoak) zeharbideetako zati gatazkatsuetan bide-segurtasuna hobetzeko, seinaleen eta kontrolaren arloko prestakuntza-neurrien osagarri, zirkulazio guztien arteko bizikidetzak egokia lortzearren, ibilgailu motordunen abiadura motelduz eta behar den esparruan edukiz.

Neurri horien barruan, zirkulazioa moteltzeko eginkizuna betetzen dute abiadura-murriztaileak, errepide-zati batean zehar abiadura txikia eta aurrez finkatua egotea eragiten baitute. Euskal Autonomia Erkidegoan, segurtasun-arrazoiengatik, kontrolpeko abiadura ez ezik, gidatzeko orduan arreta handiagoa ere eskatzen duten hainbat zeharbide daude; horregatik, gailu horiek aztertu eta arautu behar dira bide-ekipamenduaren elementu modura.

Eskumena duten administrazioek, bai tokiko eremuan bai horretatik kanpo, abiadura-murriztaileak arautu, proiektatu eta ezarri dituzte duela urte batzuetatik; hori dela eta, haien portaerari eta mugei buruz hartutako esperientziari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako errepideetako zeharbideetan erabili beharreko instrukzio tekniko bat idatz daiteke.

Instrukzio tekniko honek zeharbidetzat hartutako errepide-zatietan dauden abiadura-murriztaileen gaineko irizpide teknikoak eta instalazio-mugak ezartzen ditu. Nolanahi ere, oinarrizko irizpide horiek behar den justifikazio teknikoa barne hartzen duen txostenaren bidez berrikus daitezke, baldin eta aplikatu beharreko beste araudiren bat urratzen ez badute.

2.– Xedea.

Abiadura-murriztaileak proiektatu, eraiki eta ezartzeko garaian kontuan hartu beharreko oinarrizko irizpideak ezartzea da instrukzio tekniko honen xedea.

3.– Aplikazio-eremua.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako errepide-sareetako zeharbideetan instrukzio teknikoa onartu ondoren ezartzen dituzten abiadura-murriztaileei aplikatuko zaie instrukzio tekniko hau.

4.– Definizioak.

Abiadura-murriztaileak (AM): errepideko errodatze-azaleran ezarritako gailuak dira, haren zati batean abiadura txikia eta aurrez finkatua edukitzea xedetzat dutenak.

Gailu horiek bidearen sestra zentimetro batzuk igotzen dute luzera jakin batean, eta eraginkorrak dira ibilgailuak gailu horien gainetik igarotzean sortzen den azelerazio bertikala deserosoa delako ibilgailuko bidaiarientzat, eta ondorioz, abiadura moteldu behar izaten du gidariak.

Instrukzio tekniko horren ondorioetarako, honako gailu hauek daude:

Zeharkako sekzio trapezoidaleko abiadura-murriztaileak: (oinezkoen pasabide goratuak). Gailu horiek oinezkoen pasabideen funtzioa betetzen dute, eta bide-zoruaren maila baino goraxeago dute sestra. Lege-ondorioetarako, oinezkoen pasabideei zein abiadura-murriztaileei buruz indarrean diren xedapenak aplikagarri zaizkie.

Haien eraikuntzaren ondorioetarako, guztiz in situ egindakoak hartzen dira horrelakotzat.

«Mando-bizkar» erako abiadura-murriztaileak: Gailu horiek errepidea zentimetro batzuk igotzen dute zenbait metroan, zeharkako sekzio zirkular baten arabera.

Haien eraikuntzaren ondorioetarako, guztiz in situ egindakoak hartzen dira horrelakotzat.

Abiadura-murriztaile prefabrikatuak: Itxura sabeldua dute oro har, eta bide-zoruko irtengune gisa erabiltzen dira. Hainbat moduluz osatuta daude, eta horiek muntatu eta zoladurara finkatzen dira.

5.– Ezartzeko irizpideak.

Ondoz ondoko abiadura-murriztaileen arteko gutxieneko tartea zeharbideko abiaduraren arabera egokituko da 30 km/h-ko abiadurako 50 metroen eta 50 km/h-ko abiadurako 100 metroen artean.

Galtzadaren ardatzarekiko perpendikularrean ezarriko dira, hura osoki okupatuta –hau da, zirkulazio-erriak eta bazterbideak eta aparkatzeko eremuak hartuta, halakorik badago–.

Abiadura-murriztaileak baimendutako gehieneko abiadura 50 km ordukoa duten tarteetan ezarriko dira, «mando-bizkar» erakoak izan ezik, halakoetarako gomendatzen baita tarteko gehieneko abiadura gehienez 30 km/h izatea.

Honako hauetan ezingo da abiadura-murriztailerik ezarri:

- Zeharbidetzat hartzen ez diren sareko tartetean, betiere errepideei, trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruz indarrean dagoen legerian jasotako definizioari jarraikiz.
- Lehentasuneko intereseko sarean.
- Arabako errepide-sareko 3.000 ibilgailu baino gehiagoko eguneko batez besteko intentsitatea duten oinarritzko sarean eta ohiko sarean, eta 5.000tik gorakoetan Bizkaiko eta Gipuzkoako errepide-sarean.
- Ibilgailu astunen eguneko batez besteko intentsitatea 300 ibilgailu baino gehiagokoa den zatietan.
- Zeharbidearen muturretatik 50 metro baino gutxiagora, sarrerako atea badago izan ezik.
- 200 metro baino txikiagoko beheko erradioa duten bihurguneetan, eta bihurguneko sarrera eta irteeratik 50 metro baino gutxiagora.
- Gelditzeko ikuspena baino distantzia txikiagoan, bide-zatian legez ezarritako abiadura, gehi 20 km/h, eta % 20 handiagotuta, kontuan harturik.
- 200 metro baino gutxiagoko luzera duten zeharbideetan.
- A_{85} 60 km/h baino handiagoa ez den tokietan.
- Zubi edo tuneletan edo fabrika-obretan, eta aurreko eta ondorengo 25 metroetan.
- % 5etik gorako malda duten zatietan.
- Zirkulazioaren noranzko bakoitzeko bi erretik gora dituzten errepide-zatietan, edo bi zirkulazio-errei baino gehiago dituztenetan, betiere gutxienez 2 metroko zabalerako erdibitzaile goratu bat ez badago bi galtzadak bereizteko; behar bezala justifikatutako kasuetan 1,50 metrora ere murriztu ahal izango da.
- Larrialdietako ibilgailuak nahitaez igartzeko zatietan. Larrialdietako ibilgailuek erabili ohi dituzten errepide-zatietan berariazko azterketa bat egingo da, eta igartzeko maiztasuna zein ordezk bideen egokitasuna kontuan hartuko ditu.
- Galtzadaren bi aldeetan espaloi goratu bat eta oinezkoen ibilbide bat ez daudenean.
- Oro har, garaje-irteeretatik edo bideetako sarbideetatik 5 metro baino gutxiagora, lerrokaduren tangentetik arrapalaren hasieraraino neurtuta.
- Oro har, autobus-geralekuetatik 5 metro baino gutxiagoko distantzian –gomendagarria da gutxienez 10 metroko distantzia errespetatzea–.

Galtzadaren bi aldeetako elkarguneen eta espaloi-eremuen inguruan oinezkoen pasabide goratuak baino ezin izango dira ezarri, baldin eta betiere oinezkoen pasabideak eta oinezkoen ibilbide bat badaude.

Bi ertzetan espaloi goratuak dituzten zatietan ezingo dira «mando-bizkar» erako sekziorik ezarri.

6.– Diseinu-irizpideak.

6.1.– Eraikuntza-materialak.

Eraikitze erabilitako materialek egonkortasuna, galtzarekiko lotura, deformaezintasuna eta iraunkortasuna bermatu beharko dituzte.

In situ egindako abiadura-murriztaileak egiteko orduan osagai asfaltikozko materialak erabiliko dira; material horiek lerratzearen aurkako erresistentzia egokia bermatu behar dute; hala bada, obra bukatuko kalitaterako ZMKko 65eko balioak edukiko dituzte gutxienez (PG3 agiriko 540., 542. eta 543. artikuluetan adierazita daude balio horiek). Hormigoia ere onartu ahal izango da, haren azaleko ehundura 0,6 eta 0,9 artekoa bada, NLT-335 arauaren arabera.

Abiadura-murriztaile prefabrikatuak egiteko orduan gailua guztiz finkaturik gelditzea bermatzen duten torlojuak edo itsasgarri kimikoak erabiliko dituzte galtzadari eutsita gelditzeko. Kautxua edo eratorriak eta material plastikoak izango dira erabilitako materialak.

6.2.– Geometria.


6.2.1.– Sekzio trapezoidaleko murriztaileen geometria. oinezkoen pasabide goratuak.

Abiadura-murriztaile trapezoidalaren luzetarako profilak, ibilgailuen martxaren noranzkoan, eremu goratu bat eta maldadun bi zati hartzen ditu, eta neurri hauetako trapezioa osatzen du:

- Altuera: $10 \text{ cm} \pm 1 \text{ cm}$. Espaloiaren altuera pasabidearen luzera osoan egokitu beharko da abiadura-murriztaileak eduki beharreko $10 \text{ cm} \pm 1 \text{ cm}$ -ko altuerara, oinezkoen ibilbideak jarraitu dezan eta arkitektura-oztoporik egon ez dadin.

- Plataforma goratuaren luzera: $4 \text{ m} \pm 0,20 \text{ m}$. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan luzera txikiagoak onartuko dira, gutxienez $2,5 \text{ m}$, eta handiagoak, gehienez 6 m . Sei metro luze izango da oinezkoen pasabidearekin batera txirrindularien beste bat ere badago.

- Arrapalen luzera: sartzeko arrapalek $2,5$ metroko luzera izango dute gehienez 50 km/h -ko abiadura baimenduta duten zatietan, eta luzera hori 2 metrora murriztuko da 40 km/h -ra mugatutako zatietan, eta $1,5$ metrora 30 km/h -ko abiadura-muga bermatzearen. Nolanahi ere, tarte hori bat badator autobusen zirkulazio handiko ibilbide batekin, adierazitakoak baino gehieneko luzera handiagoko arrapalak onartzea aztertuko da ($2,5$ metro gehienez).




L_R: Arrapalen Luzera

6.2.2.– «Mando-bizkar» erako abiadura-murriztaileen geometria.

In situ gauzatutako «mando-bizkar» erako abiadura-murriztaileak segmentu zirkularreko zeharkako sekzio bat izango du. Honako hauek izango dira haren neurriak:

- Altuera: $6 \text{ cm} \pm 1 \text{ cm}$
- Luzera: $4 \text{ m} \pm 0,20 \text{ m}$



6.2.3.– Abiadura-murriztaile prefabrikatuen geometria.

Abiadura-murriztaile prefabrikatuen neurriak bide-zatian baimendutako gehieneko abiaduraren araberakoak dira:

Gehieneko abiadura (km/h)	Luzera L (cm)	Altuera (cm)
50	≥ 60	≤ 3
<50	$60 < L < 120$	5

Abiadura-murriztaile prefabrikatuak, oro har, muntatzen eta zoladurari in situ finkatzen diren moduluz osatuta daude.

Kontu handiz egingo dira biltegitatu, garraiatu, bildu eta muntatzeko lanak, elementuei kalte egiten dieten narriadurak edota gehiegizko esfortzuak ez eragiteko. Egin beharreko kontrolen ondoren moduluek akatsak badituzte eta horiek eragina badute haien erresistentzia-, egonkortasun- edo portaera-baldintzetan, baztertu egingo dira.

Moduluak muntatuko dira, eta ezarri beharreko gailurako aurreikusitako itxurara egokitu beharko da osatutako multzoa.

Murriztaile prefabrikatuak zoladurari torlojuz edo itsasgarri kimikoez finkatzen dira; murriztailean enbutituta gelditu behar dira, abiadura-murriztailearen azaleratik haien elementu edo atal bakar bat irten gabe.

7.– Sarrerako ertza.

Galtzadaren eta abiadura-murriztailearen arteko tartea gehienez 5 mm-ko altuera izango du; hartarako, abiadura-murriztaileak in situ ezartzeko prozesuan, gutxienez 3 eta 5 cm arteko sakoneran eta 50 cm-ko zabaleran sartuko dira galtzada-ardatzarekiko zeharkako muturrak.

8.– Drainadura.

Galtzadatik doazen urak drainatzea bermatu beharra dago, eta ez dira ur-pilaketa edo putzurik sortu beharko abiadura-murriztailearen muturretan. Hala, bada, hustulekuen bidez bilduko dira euri-urak eta sareko kolektorera hustuko dira. Erreietako albo bakoitzean, kota altuenean dagoen abiadura-murriztailearen ur gorako ertzetik gertu, jarriko dira hustuleku horiek. Galtzada horizontaletan drainadura bermatu beharko da.

9.– Ekipamendua.

9.1.– Seinaleak.

Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorrean eta errepideak seinaleztatzeko 8.1-IC eta 8.2-IC arauetan xedatutakoa bete beharko dute seinaleak.

Zirkulazioaren bi noranzkoetako galtzadetan zeharbidera eta gailura sartzeko bi noranzkoetan jarriko dira seinaleak, bi noranzkoetan doazen gidariak ikusi ahal izan ditzaten.

Zirkulazioaren noranzko bakoitzean bi errei dituzten galtzadetan -hots, galtzadaren bi aldeetan- seinale bikoitzak ezarri behar dira nahitaez.

Abiadura-murriztapenak eragindako zati osoan debekaturik egongo da aurreratzea, baita zirkulazioaren noranzko bakoitzeko errei bat baino gehiago duten galtzadetan ere, eta gutxienez 10 metroko luzeran murriztaile isolatuaren edo taldearen alde bakoitzean.

9.1.1.– Seinaleztapen horizontala.

9.1.1.1.– Oinezkoen pasabide goratua.

Oinezkoen pasabide goratu bateko seinaleztapen horizontala Errepideen 8.2-IC Arauaren M-4.3 markaren bidez egingo da; galtzadaren ardatzarekiko banda paraleloetan jarritako 50 cm-ko baez bereizitako 50 cm-ko lerroek osatuta dago, zeinek haren zeharkako sekzio osoa eta pasabidearen goiko eremuaren luzera osoa hartzen duten. Bide-markaren eta oinezkoentzako pasagunearen artean 1 eta 2 cm-ko tartea egongo da. Banda horiek, sartzeko arrapalaren gainean, gezi-formarekin luzatuko dira metro batean (1,5 eta 2 metro luzeko arrapaletan), eta 1,5 metroko luzeran (2,5 metro luzeko arrapaletan).


Banda batek edo banden arteko tarte batek 50 cm baino gutxiagoko zabalera edukitzea eragozteko, muturretako tartea 0 eta 50 cm artean erregulatuko da, eta bandaren ardatzak edo baoak galtzadaren ardatzarekin bat egin beharko du.

Martxaren noranzkoko arrapala gorritz margotu ahal izango da luzera osoan, triangeluaren oinarritik hasita.

Martxaren noranzkoko arrapala hasi baino metro bat lehenago 40 cm-ko zabalerako marka zuri jarraitu bat margotuko da (8.2-IC Arauaren M-4.1 marka), eta arau bereko M-2.2 bide-markari

jarraipena emango zaio, galtzada noranzko bikoia bada, gutxienez 10 metroko luzeran alde bakoitzean, arrapalaren beheko muturretik. Aurreratzea debekatuta egongo da, orobat.

BI NORANZKOAK DITUEN GALTZADA



L_r : Arrapalaren luzera



Pinturaren kalitateak errepideen araudian eskatutako iraunkortasuna zein marruskadura-koefizientea bermatuko ditu, baita egunez eta gauzez ongi ikustea ere.

Ezingo da aparkalekurik baimendu abiadura-murriztailetik baino 10 metro txikiagoko tartean, betiere espaloia aurreratuta ez badago oinezkoen pasabide goratuak dauden tokian.

9.1.1.2.– «Mando-bizkar» erako abiadura-murriztailea.

Era honetako abiadura-murriztaileak ez dira oinezkoentzako pasagune gisa erabiliko. Diseinuak, zirkulazioaren noranzkoaren elementu bereizgarri gisa, hiru triangelu zuri (70 cm-ko oinarria eta 2 metroko altuera) jasoko ditu, «asto-bizkarra»ren goranzko aldearen gainean eginda.

M-2.2 bide-markari jarraipena emango zaio noranzko biko galtzadetan, abiadura-murriztailearen albo bakoitzeko 10 metroko luzeran gutxienez. Aurreratzea debekatuta egongo da, halaber.

NORANZKO BAKARRA DUEN GALTZADA**BI NORANZKOAK DITUEN GALTZADA****9.1.1.3.– Murriztaile prefabrikatuak.**

Era honetako abiadura-murriztaileak ez dira oinezkoentzako pasagune gisa erabiliko. Zirkulazioaren noranzkoan hiru triangelu zuri margotu ahal izango dira (70 cm-ko oinarria eta 2 m-ko altuera), eta H-75 malguekin balizatu.

M-2.2 bide-markari jarraipena emango zaio noranzko biko galtzadetan, abiadura-murriztailearen albo bakoitzeko 10 metroko luzeran gutxienez. Aurreratzea debekatuta egongo da, halaber.

9.1.2.– Zutikako seinaleak.

Zutikako lau seinale mota daude: abiadura-murriztapenak eragindako zatian sartzeko seinaleak, hurbiltzekoak, kokatzekoak eta, abiadura-murriztapenak eragindako zatia igaro ondoren, zeharbideko seinaleztapena berrezartzekoak.

9.1.2.1.– Zeharbidean sartzekoa.

Zeharbideko sarreretan, S-500 herri-seinalea dagoen sekzio berean, edo haren inguruan, abiadura-murriztaileen aurretik honako seinale hauek egon beharko dira:

- R-301, abiadura mugatzen duten seinaleak,
- 15a, irtengunea ohartarazteko seinaleak,
- 20, oinezkoak ibili ohi diren toki bat nahikoa hurbil dagoelako arriskua ohartaraztekoa.

Seinale horiek -haitetako batzuk edo guztiak- bide-zatiaren eta abiadura-murriztaileen ezaugarrien arabera hautatuko dira, eta seinale bakoitza bakarrik agertu ahal izango da edo elkarrekin multzoan kartel baten barruan, kasuan-kasuan aukera onena zein den.

Oinezkoen pasabide goratuen kasuan R-301 eta P-15a seinaleak dituzten hori fluoreszentezko kartelak jarri ahal izango dira, eta, hala badagokio, argi keinukariak edo ohartarazteko testua edo biak.

9.1.2.2.– Abiadura-murriztailera hurbiltzekoa.

Abiadura-murriztaile isolatu bat edo ondoz ondo dauden murriztaileen talde bat hurbil dagoela adierazteko seinaleztapen bertikala honako seinale hauez osatuta egongo da:

- R-301, abiadura mugatzen duten seinaleak,
- P-15a, irtengunea ohartarazteko seinaleak,
- P-20, Oinezkoak ibili ohi diren toki bat nahikoa hurbil dagoelako arriskua ohartaraztekoa.

Eta hurrenkera horretan ezarriko dira ibilgailuen martxaren noranzkoaren arabera.


P-20 nahitaez ezarriko da oinezkoentzako pasaguneko funtzioa duten abiadura-murriztaile trapezoidalen kasuan, eta gomendagarria izango da abiadura-murriztaileen ondoren dagoen oinezkoentzako pasagune baten kasuan, baita bide-ertzetan oinezko ugari badaude eta galtzadan sartzeko arriskua badago ere.

Abiadura-murriztaile isolatua edo taldeko lehena dena delako bide-zatiko sarrerako atetik gertu badago, bertan ezarritako seinaleek atal honetan azaldutako ondorioetarako balio duten aztertuko da, eta abiadura-murriztailea hurbil dagoela adierazteko seinale espezifikoak guztiz edo zati batez ordeztuko dituzte.

P-15a abiadura-murriztaile isolatu batetik hurbil ezarriko da beti. P-15 seinalea lehenaren aurretik egongo da abiadura-murriztaile bat baino gehiago dagoenean, eta abiadura-murriztaileen taldeak eragindako zatiaren luzera adierazten duen S-810 kartelarekin batera egongo da.

R-301 seinalea beti ezarriko da murriztailearen ezaugarri geometrikoei dagokien abiadura txikiagoa bada aurretiko bide-zatian dagoen abiadura-muga baino. Abiadura-murriztailearen aurretik edo P-15a seinalearekin batera ezarriko da. R-301 seinalearen eta oinezkoentzako pasaguneko gerra-markaren arteko tartea hau izango da: abiadura-murriztailearen ezaugarri geometrikoen araberako abiadura-mugari dagokion geratze-tartea adinakoa edo handiagoa; eta gutxienez 25 metrokoa izango da.

2018ko azaroaren 7a, asteazkena



9.1.2.3.– Kokatzekoa.

Abiadura-murriztaile trapezoidaletan gutxienez S-13 seinale bat ezarriko da oinezkoen pasabidea baino lehen eta, gutxienez zeharbideko sarreratik hurbilen dagoen murriztailean, argi-seinale bat edo atzealde hori fluoreszentearen gaineko seinale bat ezarri beharko da. Uste bada seinale hori behar besteko aurrerapenaz ez dutela ikusiko, S-13 seinalea banderatzko batean jartzea komeni den aztertuko da.

9.1.2.4.– Berrezartzekoa.

Murriztailearen ezaugarri geometrikoei dagokien abiadura aurretiko bide-zatian dagoen abiadura-muga baino txikiagoa bada, zeharbideko abiadura orokorra berrezarriko da abiadura-murriztapenak eragindako bide-zatia igaro ondoren, betiere abiadura mugatzeko R-301 seinalea irtengunea ohartarazteko P-15a seinalearekin batera ezartzen bada murriztailean.

9.2.– Argiztapena.

Abiadura murrizteko gailu horiek guztiak argiztaturik egon behar dira gauez, bermatuta egon dadin gidariek haiek ikusi eta kokatzen dituztela eta, hala badagokio, oinezkorik dagoen ere ikusten dutela. Bide-zati osoan argiak badaude, oinezkoen pasabide goratuetan kokatutakoak nabarmendu beharko dira.